



Ormaiztegui Udala

**2019ko martxoaren 25eko
UDALBATZA OSOKOAREN
BATZARRE OHIKOA**

ORMAIZTEGIN, 2019ko martxoaren 25ean, arratsaldeko 19:00etan, Udaletxe honetako Bilkura Areto Nagusian Udalbatza Osoa biltzen da, Jon ENRIQUE GALARZA alkate jaunaren lehendakaritzapean, BATZARRE OHIKOA lehen deialdian egiteko asmoz, behar den forman eta alde z aurretik Udalkide bakoitzari igorria izan zaien AZTERGAI ZERRENDAREN arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide Jaun/Andreok:

- Beñat HACH EMBAREK IRIZAR Jna.
- Jose Maria YURRITA ARREGI Jna.
- Rosario BERASATEGI AIZPEOLEA And.
- Izaskun UNZURRUNZAGA PILDAIN And.

Idazkaria:

- Begoña Antxustegi Bengoetxea And.

Ez dira agertzen, baina bere ezagertzea desenkusatu:

Ez da agertzen, bere ezagertzea desenkusatu gabe:

- Josu Mirena MAYORA ORIA Jna.
- Olaia IZAGUIRRE CRUZ And.
- Agustin GILABERT MOLIST Jna.
- Aitor YURRITA ZABALA Jna.

Segidan Lehendakariak hasiera eman dio bilerari, gutxiengo quorum-a gainditzen denez.

LEHENENGO PUNTUA:
UDALBATZARREKO AURREKO AKTEN ONARPENA.

Idazkariak akten inguruan ea baten batek zerbait adierazi nahi duen galdetu du.

Udalkideetatik inork ez du ezer adierazi.



Udal1-batzarre
O-19.03.06

Ormaiztegui Udala

...//...

Beraz, eta besterik gabe, udalbatzarrari aurkeztu zaizkion aktak onartutzat eman dira, akta hauek jarraian datozena direlarik:

- 2019.01.21eko Bilkura ohikoa (O-19-01).
- 2019.02.22ko Bilkura ezohikoa (E-19-02).

BIGARREN PUNTUA: **ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

- R-19/020tik R-19/100ra.

Idazkariak hartu du hitza eta galdetu du ia inork ezer esateko daukan.

Ez du bertaratutako zinegotzietatik inork hitzik hartu.

HIRUGARREN PUNTUA: **GFArekin hitzarmena sinatzea, hala badagokio, mendekotasun prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten herritarrek jasotako zaintzaren kalitatearen aldiko jarraipena egiteko.**

Idazkariak Udalkideen esku utzi du hitzarmenaren testua eta azaldu du udal gizarte langileak egin beharko duela hitzarmenak agintzen duen jarraipena, Udalari egokituko zaion dirulaguntzak ez baitu ahalbidetzen lan hori egiteko beste langile bat kontratatzea.

Alkateak adierazi du hitzarmena sinatuz gero zaintzaren kalitateari jarraipena egiteko dirulaguntza izango lukeela Udalak eta jarraipena berdin egin beharko lukeela hitzarmena ez sinatuta ere baina dirulaguntzarik jaso gabe.

Beñat Hach Embarek zinegotziak aipatu du jarraipen zorrotza egiten zaiela gizarte gaietan egiten diren inbertsioei eta gastuei, baina ez dela horrela gertatzen beste sektore ekonomiko batzuetan.

Ez da beste ekarpenik izan eta bozkatzeari ekin zaio. Ahobatez onartu da.

LAUGARREN PUNTUA: **UDAL LANGILEEN LANSARIEN IGOERAREN ONESPENA, HALA BADAGOKIO.**

Idazkariak adierazi du 2018ko abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege-dekretuaren xedapenez onetsi zirela ordainsarien arloko premiazko neurriak sektore publikoaren esparruan, eta Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) zirkularraren gomendioz udal langileen lansariak % 2,25ean igotzea egokituz jotzen dela.

Zinegotziek ez dute kontrakorik adierazi. Bozketa egin da eta ahobatez onartu da.

...//...
O-19/03-02



Udal1-batzarre
O-19.03.07

Ormaiztegui Udala

...//...

BOSTGARREN PUNTUA:

UDAL LANPOSTU ZERRENDAREN ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Idazkariak azaldu du, Ogasun Batzordean landutakoarekin eta ontzat emandakoarekin bat, EBEP-aren (Estatuto Básico del Empleado Público) 37. artikuluan jasotzen dela enplegatu publikoen lan baldintzak negoziazio gai direla ("Materias objeto de negociación") eta horrekin hertsiki lotuta dagoela Lanpostuen Zerrendaren urteroko onespena, zerrenda horretan jasotzen baitira udal lanpostu guztien ezaugarriak.

Aurtengo Lanpostuen Zerrendaren negoziazioa 1998tik egin den lehena dela aipatu du idazkariak eta Zerrendaren egokitzapen beharra justifikatu du. Negoziazio horretan izan den adostasuna lortzeko erraztasuna eskertu du bere izenean eta bere lankideenean.

Azkenik, adierazi du zerrendan jasotzen direnak lanpostuarekin lotutako aldaketak direla, Plenoaren eskumenen artean daudenak, eta, pertsonarekin lotutako ordainsariak alkatearen eskumena direnez, bere ebazpenez erabakitzen direla. Kontuhartzaitzak txostenean arrazoitzen dira aldaketen zergatiak eta lege euskarriak.

Ondorioz, honako aldaketa hauek bozkatu dira da eta ahobatez onartu, aurtengo urtearen hasieratik eta interesatuei akordioaren edukia jakinaraziz:

Lanpostua	Taldea		Dedikazioa	Destino osagarria		Dedikazio Bereziaren Osagarria	
	Lehen	Orain		Lehen	Orain	Lehen	Orain
Idazk.Kont.	B	A1	% 100	22	22	% 30	% 30
Gizarte.Lang.	B	A2	% 40	17*	17*	*	*
Administraria	C	C1	% 100	14	14	.	% 7,75
Adm.Laguntz.	D	C2	% 100	11	11	-	% 7,75

*Lan-iturpekoa da eta bere ordainsarien artean ez dira osagarri kontzeptu horiek jasotzen.

SEIGARREN PUNTUA:

ERREGUAK ETA GALDERAK

Ez da erregurik ez galderarik planteatu.

...//...
O-19/03-03



Udal1-batzarre
O-19.03.08

Ormaiztegui Udala

Eta bilkuraren puntu honetara iritsita, 19:35 ordu direnean, bilkura amaituzat ematen da. Eta nik, Idazkari-Kontuhartzailea naizen aldetik, horren akta egin eta ziurtatzen dut bertan esandakoa leial jasotzen duela.

Ormaiztegin, 2019ko martxoaren 27an.

Idazkaria-Kontuhartzailea,



Sin.: Begoña Antxustegi Bengoetxea

...//...
O-19/03-04